

| | |
|--|--------------|
| IL ULERMEN PROBA • <i>Ezker hanka falta zuen</i> | |
| Izen-deiturak | Taldea |
| > Markatu (X) erantzunak (35) test laukietan: E F edo A B C D. | |
| > Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik* (*E Fn zutabe bat osorik markatu ezean) | |

| | | |
|------------|--|------|
| Zuzen | | |
| Negatib. | | |
| GUZT. | | / 35 |
| Kalifikaz. | | / 10 |

1. Lau pertsona egon ziren Gerenaren hiletan: Garazi, Lolo, Boli eta idazlea.
2. Pertsonaia guztien artean, Gerenak estimu handienez zuela Garazi zen.
3. Idazlea Gerenaren herrira joan zen "Que vida" hitzekin hasten zen ipuin bat konta ziezaioten.
4. Gerenak bere hanka lan istripu batean galdu zuen.
5. Gerenak bere apartamentua Europarekin konparatzen zuen.
6. Xenaro lehengusua bisitatzera behin joan zen.
7. River futbol taldea bigarren mailara igo zen Barakaldoren kontra irabazi eta gero.
8. Protagonista eta Garazi igogailu ondoko landetan geratu ziren Gerenarekin.
9. Gerena, kartzelan eman zituen lehenengo hilabeteetan, Lolo sandia zaporeko neska ilegorri batekin ibiltzen hasi zen.
10. Gerena kartzelatik atera zenean, hara joan baino lehen zen bezalakoa zen.
11. Generaren itxura kartzelatik atera ondoren mamu batena zen.
12. Iñaki ospitaleko gau batean ohetik altxatu zen, korridorera irten, komunera sartu eta ur izoztuarekin dutxatu zen.
13. Xenaro Mouro Gerena baino zaharragoa da.
14. Gerenak diabetesak jota galdu zuen eskuineko hanka.
15. Aureliori (tabernaria) asko inporta zaio jendeak bere tabernari bere emazteak eman zion izenarekin deitzea.
16. Protagonistak *Carmiña* liburua irakurri zuen Gerena ospitalean zegoela.
17. Protagonista eta bere lagunak landetan geratzen ziren normalean.
18. Karreristak ospitalean egonda ohean pasatu zituen egun guztiak.

19. Gerena hil zenean...
 - a) *El Correo Español*-en (Ezkerraldeko edizioan) obituario laburra jarri zuten, erretratu batekin.
 - b) *El Correo Español*-en (Ezkerraldeko edizioan) eskela jarri zuten, egunkarian lan egin zuelako.
 - c) Bere kronikagile lana ezkerraldeko aldizkarietan aipatu zuten.
 - d) *River*-eko kamisetarekin lurperatu zuten.

20. Gerenaren lehengusuaren herriko tabernan...
 - a) Deportivo de la Coruñaren zaleak dira.
 - b) Manuel Rivas idazlea zegoen.
 - c) Lehengusua tabernaren jabea zela ikasi zuen idazleak.
 - d) Sin Chan zegoen jarrita telebistan.

21. Gerenaren apartamentutik zer nabarmentzen du idazleak?
 - a) Nola zegoen ordenaturik.
 - b) Usainak.
 - c) Gerenaren liburuak.
 - d) Leihoen kokapena.

| | E | F |
|----|---|---|
| 1 | | |
| 2 | | |
| 3 | | |
| 4 | | |
| 5 | | |
| 6 | | |
| 7 | | |
| 8 | | |
| 9 | | |
| 10 | | |
| 11 | | |
| 12 | | |
| 13 | | |
| 14 | | |
| 15 | | |
| 16 | | |
| 17 | | |
| 18 | | |

22. Gerenaren lehengusuaren herrian...

- a) Manuel Rivasek lortu zuen herritar bakoitzak ipuin bat asmatzea.
- b) Herritar bakoitzak ipuin bana kontatu zion Manuel Rivasi.
- c) Tximeletak hazten ziren, eta horrek Manuel Rivasi bere ezkontzan tximeletak askatzeko ideia eman zion.
- d) Manuel Rivasek herritar bakoitzak ipuin bana memoriza zezala lortu zuen.

23. Protagonistaren arrebaren ezkontzan zerbait gertatzen da; zer eragiten du horrek?

- a) Protagonista ateo bihurtzen da.
- b) Protagonista ez da berriro sartzen eliza batera.
- c) Protagonista asko haserretzen da apaizarekin.
- d) Gertakizun horrek ez du ondorio garrantzitsurik eragiten.

24. Zer egiten dute Galiziako herrian Aste Santua ailegatzean?

- a) Ezer ez.
- b) Antzezlan bat.
- c) Film bat ikusi.
- d) Janari bat.

Aukeratu jarraipena:

25. Gerena atxilotu zuten gauean Garazi eta biok...

- a) auzitegian protestaka egon ginen.
- b) Begoñako igogailuen ondoko landetan etzan ginen.
- c) espetxera joan ginen bere ondasunak eramatera.
- d) beraren gurasoen bila joan ginen Burgosera horren berri ematera.

26. Horrenbeste zabaltzen du ahoa, ezen Mike Tysonen ukabil makurra ere galduko litzaioke karies espantagarrien artetik. Eta zabaltzen duen aldiro...

- a) hortz guztiak ikusten zaizkio.
- b) listu parrastada bat jariatzen du.
- c) soinu goxoa dario.
- d) aho-kiratsa dario

27. Merezi zuen Gerenak zangoa galtzea manifestazio batean. Diabetesak eroan zion, ordea. Eta salbatuko zuen baldin eta, urte batzuk lehenago, River bigarren mailara igo izan balitz.

- a) Baina ez zen igo. Barakaldok jipoitu zuen azken partiduan.
- b) Baina ez zen igo. Azken partiduan galdu zuten.
- c) Igo egin ziren. River taldea garaitu zuten.
- d) Partidua suspenditu zen, eta bi hilabete geroago galdu zuten Barakaldoren aurka.

28. Sukaldera zigortzea hitzarmenaren eszenifikazio hutsa izan zen. Oihuak Boliren erreguak Gerenaren danbadak isiltzeko aginduak arrantzak Aurelioren balakak Maritxuren balakak argi iristen zitzaizkigun. Ate zirrikitutik, Mamenen bisaia goibela, Andres Barandika Erretuertoko muskerraren soslaia eta Boliren joan-etorri urduriak ikuskatzea ere bagenuen.

— Bihar, berandu gabe...

- a) Riverren aurrelariak "hat-trick" a lortuko du!
- b) irabazteko ordua helduko da!
- c) ikasiko du Amuchasteguik nolakoa den Riverren aurrealdea!
- d) Arenasen kontra irabaziko dugu!

29. Rivasen ipuinetatik gehien gustatzen zaidana da, Robespierrenen bolbora guztia baino gehiago beharko du gogobetetzeko. Purgatorioaren gaineko esaldi hori: *Aquello es un brezal desarbolado*. Amarok kontatzen zuen hura guztia, hil aurretik gutxienez zortzi bider hil zen osaba. Aditua zen hiltzen, sano duin hiltzen zen. Eta heriotzatik bueltatzen zen beti La Toja xaboi en lurrinaz, Mallo Orkestraren akordeoi-jotzailearen moduan orrazturik, Galeseko Printzea trajea soinean eta...

- a) kapela luze bat buruan.
- b) ipuin harrigarri bat maletan.
- c) diru mordoa zorroan.
- d) beste zauri bat gorputzean.

| | A | B | C | D |
|----|---|---|---|---|
| 19 | | | | |
| 20 | | | | |
| 21 | | | | |
| 22 | | | | |
| 23 | | | | |
| 24 | | | | |
| 25 | | | | |
| 26 | | | | |
| 27 | | | | |
| 28 | | | | |
| 29 | | | | |
| 30 | | | | |
| 31 | | | | |
| 32 | | | | |
| 33 | | | | |
| 34 | | | | |
| 35 | | | | |

| | | |
|-----|---|--|
| 30. | <p>Ahotsa Unamuno plazako alkohol-zaleena bezain marrantaturik heldu zitzaidan. Zapata beltz irristagarriak eta gona labur elastikoa zeramatzan soinean. Horrela beztitzen zen Boulervardeko dantzaldietarako. Kafetegi zaharrak Buenos Aireseko kalezuloetako erritmoetara xurgatzen zuen ostiral arratsaldeetan. Zortziak inguruan lotzen zen tango-kidearekin, katu itxurako reiki terapeuta. Erotuta zeuzkaten aldian-aldian eskolak ematera azaltzen ziren irakasle porteñoak.</p> | <p>a) Idazleak eta Garazik luze hitz egin zuten gau hartan, Manuel Rivasen liburuari buruz.</p> <p>b) Catanian zegoela idazlea tangoa dantzatzera joan zen taberna batera.</p> <p>c) Garazik idazleari deitu zionean, taberna batean zegoen tangoa dantzatzen.</p> <p>d) Idazleak eta Garazik ezin izan zuten asko hitz egin gau hartan.</p> |
| 31. | <p>Abadeak, Aranda de Duerokoa bera, baiezkoa eman dio aureskua barruan dantzatzeari, mezerdiaren ondoren. Unea ailegatzean, ordea, ahantzi egin zaio gizonari. Aureskularia eta txistularia esperoan daude, burgostarraren eskuinaldean, zutunik Santiagoren Lepamoztea koadroaren azpian, niri imintzioka. Gogaitzen eta urduritzen hasi dira. Halako batean, Jesukristoren gorputza bildutakoei eskaini baino lehenago, dantzaria aldarearen aurrean paratu da.</p> | <p>Non gertatua zen pasarte hori?</p> <p>a) Idazlearentzat ezezaguna zen pertsona baten hiletan.</p> <p>b) Idazlearen arrebaren ezkontzan.</p> <p>c) Gerenaren hiletan.</p> <p>d) Gerenaren ezkontzan.</p> |
| 32. | <p>Helmuga zehatzik gabe joan naiz narrasean, harik eta Aurora Barreiros venus mardula topatu arte. Erromes baten lez hurreratu natzaio, eskean jardun dut ailegatu nintzenetik. Oraindino ez dut paradarik aurkitu Xoseren emaztearekin berba egiteko. Labanda usaina dario.</p> | <p>Zer nabari zaio?</p> <p>a) Tristura, seme-alabak etxetik kanpo egoteagatik.</p> <p>b) Kezka, familia horrek duen egoera ekonomikoa dela eta.</p> <p>c) Goizetan Joga egiten duela.</p> <p>d) Senarra tabernan kontu-kontari ibiltzeak bake sentsazioa ematen dio.</p> |
| 33. | <p>Eguerdi aldera gizon bi jaitsi ziren auto beltz batetik eta zerraldoarekin laguntzera gonbidatu gintuzten. Presaka zebiltzan. Koipezto batek gorbata erantzi zuen bero-sapagatik. Hamar urrats ibiltzerako izerdi-patsetan geunden denok. Eguzkiak gogor jotzen zuen. Gizonetako batek, nagusia zirudienak, beste inor espero genuen galdetu zigun. Elkarri begiratu eta sorbaldak eta bekainak goratu genituen mutilok.</p> | <p>Noiz gertatzen da?</p> <p>a) Galiziarra abiatu baino lehen.</p> <p>b) Galiziarra ailegatu eta gero.</p> <p>c) Aste Santuaren ondoren.</p> <p>d) El bar de Aurelion izandako elkarrizketa batean.</p> |
| 34. | <p>Toki zarratu batean denbora luzea eman eta gero, beherantz begiratzera kondenatzen duzu zeure burua. Kalera atera eta zakurren moduan ibiltzen zara, usainka kasik. Herriekin, berriz, alderantziz gertatzen da. Arrazoiak arrazoi, gora eroaten duzu beti behakoa. Espainiak zuri behatzen dizu; zuk, Frantziari; Frantziak, Ingalaterrari eta Alemaniari. Eta den-denek Europari, ipar-poloko leku izozturen batean egon behar den gunehorri.</p> | <p>Hausnarketa hori, nor egingina da?</p> <p>a) Xenarok.</p> <p>b) Lolok.</p> <p>c) Garazik.</p> <p>d) Gerenak.</p> |
| 35. | <p>Gerenak lepoa bueltatu zuen astiro, <i>naukazu</i> hark ez ninduen ikusezin bilakatzen.</p> <p>Une batez, Abrarainoko bidea inoizkorik abandonatua ena begitandu zitzaidan, Bilboko udaletxetik Euskalduna zubiraino mintzaldia gezurrezko zihoan, estetika berri itogarri baten menpe, Amezaga eta Kresalarekin alboratua zen eredu literarioa, burdinapilak eta bobinak bezain finitua. Tilo batek erdibitzen zuen jauregi bihurtutako ontzitegia: ezkerrean herdoil nahia; nahi herdoildua eskuinean.</p> <p>Eta berehala konprenitu nuen ez zegoela partida hartaz kronikarik idatziko zuen kazetaririk.</p> | <p>Gerenarekin geratu dira...</p> <p>a) manifestazio baten ondoren.</p> <p>b) Galiziatik bueltatu delako.</p> <p>c) kartzelatik itzultzean.</p> <p>d) klinikatik irten denean.</p> |